



## ◆ KIROL PATRONATUA

# Larunbatean hasiko da emakumezkoen herri mailako aurreneko pala txapelketa

Eskola kirolean asteburuan Gipuzkoako finalak jokatu dituzte hiru neska taldek. Patronatuak azpimarratu du ahalegin berezia egiten ari dela emakumeen artean kirola sustatzeko.

ASTEBURUAN hasiko da Kirol Patronatuak antolatutako emakumezkoen aurreneko pala txapelketa. Kirol patronatuak azaldu duenez txapelketa honetan adin desberdinetako emakumeek hartuko dute parte, eta parte hartuko duten emakumezkoen batz besteko adina 42 urtekoa da. Patronatuak balorazio positiboa egin du, adin tarte horretako emaku-

meek kirola egitea baita patronatuak markatutako helburuetako bat.

Pala partiduak goizeko 10:00etan hasiko dira kiroldegian eta honakoak izango dira partiduak: Loli-Amaia/Axun-Agurtzane; eta Mari Jose-Koro/Idoia-Iratxe.

**Eskola kirolean neska ere bikain ari dira**  
Bestalde, eskola kirolean ere

neskak fin ari dira, Hernaniko ikastetxeetako hiru talde iritsi baitira Gipuzkoako finalerara. Kirol Patronatuak azpimarratu du, neurri batean, emakumezkoekin egiten ari diren ahalegin bereziaren emaitza dela lorpen hau. Gainera, pozik agertu da adin tarte ezberdinetako emakumezkoengana iritsi direlako.

Honako taldeak dira larunbatean finala jokatu

duenak: palan eta alebin mailan, Langile Ak Pello Errotaren kontra jokatu du, Azpeitin, arratsaldeko 16:00-etan; Palan eta infantil mailan, Urumea Bk Loinazpe Aren kontra jokatu du Azpeitian, arratsaldeko 17:00-etan; azkenik, futboleko eta alebin mailan, Elizatxo Bk Jakintza Cren kontra jokatu du Donostian, goizeko 11:00etan. ||

## ❖ GURE ETXOLA

### Bermeora gaur

Gure Etxola emakume zentroak Bermeora irteera egingo du gaur, Arrantzaleen Museoa bisitatzera.

Ondoren, Urdaibaira joango dira. Eguerdi partean bazkaldu, eta ondoren, Azpeitira joango dira Loiolako Santutegira bisitatzera. ||

## ❖ CHILLIDA LEKU

### Larunbatean pintura lehiaketa

Larunbatean pintura lehiaketa izango da Chillida Leku musean, Tamayo dendak antolatuta. Jakinarazi duteenez, izena alde zuretik eman behar da [www.tamayo.es](http://www.tamayo.es) web orrian edo Tamayok Donostia, Arrasaten edo Ordizian dituen dendetan. 6 urtetik gorako artistek parte hartu ahal izango dute. Sari interesgarriak izango dira kategoria ezberdinetan irabazten dutenentzat. ||

## ❖ ABESBATZAK

### Kantuz abesbatzaren eguna larunbatean

Kantuz abesbatzaren eguna izango da larunbatean, abesbatzak urtean zehar herrian egiten duen kontzerturik garrantzitsuenetarikoa. Estilo ezberdinetako kantuekin osatutako erreperitorio zabala prestatu dute. Arratsaldeko 19:30etan, Milagrosan. ||

## ❖ UDALA

### Diru laguntzen araudia aurkeztuko dute astelehenean

Kultur elkarteentzako diru laguntzen araudia aurkeztuko dute astelehenean Biterin. Hainbat bilera izan dira Udala eta herriko talde ezberdinen artean eta prozesu horren emaitza da astelehenean aurkeztuko den araudia. Arratsaldeko 18:30etan, Biterin. ||

# Adimen emozionalaren inguruko tertulia gurasoentzat maiatza eta ekainean

Bi saio izango ditu tertuliak, maiatzaren 26an eta ekainaren 2an, Biteri kultur etxean. Irekia da eta edozein gurasok hartu dezake parte.

PREBENTZIO tertuliak izango dira datorren maiatzaren 26an eta ekainaren 2an, Ongintza patronatuko Prebentzio zerbitzuak antolatuta. Saioan adimen emozionalaren inguruan hitz egingo dute, Hilario Garrudo esperientzia haundiko psikologoak gidatuta.

Tertuliak arratsaldeko 15:00etatik 16:30etara izango dira, Biteri kultur etxean. Parte hartu nahi duten gurasoentzat irekia da, eta ez da izena eman beharrik.

### Adimen emozionala

Saio honetan adimen emozionalaz hitz egingo dute, «adimen emozionala gure emozioak eta sentimenduak

gestionatu edo kudeatzeko beharrezkoa den gaitasuna da» azaldu du zerbitzuak. Azken finean, bizitzarako behar diren trebetasunen inguruan hitz egingo dute,

«bizitzarako trebetasunak abilezia psikologikoak dira, eta hauek beharrezkoak ditugu bizitzako erronkei aurre egiteko» azaldu du.

Prebentzio zerbitzuak az-

pimarratu du Hilario Garrudo psikologo eta familia terapeuta esperientzia. Azaldu duenez tertulia hauetan bere ezagupenak konpartitzeko aukera izango da. ||



Bizitzarako beharrezko gaitasun psikologikoetaz hitz egingo dute.

**Yaben English School**  
Nurringa z/g. 20120 Hernani Tel: 943 33 17 63

**UDARAKO IKASTAROAK**

UZTAILA IKASTARO INTENTSIBOAK edn guztianz	UZTAILA UDALEKUAK 4 urte - 10 urtekoentzat
--	--

**MATRIKULAK EKAINAREN 1etik 20ra**  
Guztetan, 10:00-12:00 - arratsaldean 17:00-19:00

University of Cambridge Local Examinations Syndicate. Zentro baimendua ES 409

**TRIPA BETE NAHI?**  
PINTXOAK, RIZIOAK,  
ENTSALADAK,  
PLATER KONBINATUAK  
ZATOZ DASTATZERA!

**TRIPONTZI TABERNA**  
EGUNERO MENUAK  
Kardsberaz, 11 tf. 943555724

**8,50**

**TELEFONAK** ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● DYA: 943 464622 ● Autobusak: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 ● Anbulatorioa: 943 006666 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103  
**FARMAZIAK** ● Egunez: Correa Perkaiztegi 8 - 943 336022 ● Gauzez: Correa Perkaiztegi 8 - 943 336022

**EGURALDIA**  
**GAUR** Eguraldi nahasia izango da, goizean lainoak nagusituko dira eta euri arina egingo du. Arratsaldean zaparradak izango dira. Tenperaturek behera egingo dute.

**BIHAR** Ezegonkortasuna izango da nagusi. Laino asko izango dira eta zaparradak botako ditu. Tenperaturek gora egingo dute, gradu pare bat.

## ❖ KOXKA HERNANIKO EZINDUEN ELKARTEKO BILERA



Asteartean, Biterin, Hernaniko ezindu fisiko eta laguntzaile ugari bildu zen.

# Kiroldegiko eta kaleetako trabak aztergai

Koxka elkarte aste honetan bildu da. Elkartea legalizatzeko tramiteen berri eman zuten. Kiroldegian eta kalean dituzten trabak aztertu zituzten.

KOXKA Hernaniko Ezinduen taldeak bilera izan du aste honetan. Hiru gai jorratu zituzten. Lehenengo elkarte legalizatzeko tramiteez hitz egin zuten. Eusko Jaurlaritzara bidali dituzte eskaria eta paperak, eta hila-bete baten bueltan erantzuna jasotzea espero dute.

Kiroldegia izan zen bileran aztertu zen beste gai bat. Zehazki, ezindu fisikoek kiroldegia erabiltzeko dituzten trabak aztertu zituzten. Trabak zerrendatu eta *Kirol Ego-*

● **Kalean ezinduek dituzten trabei argazkiak atera eta Udalarari aurkeztuko dizkiote.**

● **Txosten bat ere aurkeztuko dute kiroldegia ezinduen beharretara egokitzeko.**

kituaren Euskal Federakuntzarekin biltzeko asmoa dute, haien iritzia jasotzeko. Guzti honen helburua da txosten bat osatzea, kiroldegia ezinduen beharretara egokitzeko.

**Kaleko trabak**  
 Azkenik, beste gai hau ere aztertu zuten: kalean ezinduek dituzten trabak. Asmoa dute traba hauei argazkiak ateratzea eta ondoren Udalarari aurkezte. Harremanetarako telefonoa: 645 727 793. E-maila: [koxxa-elkartea@hotmail.es](mailto:koxxa-elkartea@hotmail.es) ||

## ❖ ASTIGARRAGA

### Kolonbiari buruzko hitzaldia eta erakusketa

Astigarragan gaur Kolonbiako *Arhua* herriko

3 ordezkari beren herriari buruzko hitzaldia emango dute, kultur etxean. Gaiari buruzko erakusketa ere izango da. Ekitaldi hau Udalak eta ikastolak elkarrekin antolatuta duten Agenda 21eko ekintzen barruan dago. ||

**JANTZI DENDA**

# AMBOTO

**LIKIDAZIOA**  
AZKEN ERREMATEA

**%60**ko  
deskontua

**DESKONTU HAUNDIAGOA**

**JANTZI LOTEETAN**

Nagusia 43    Amboto Jantzi Denda    Hernani



## ❖ SAN JOANAK

### San Joan Kantaitako entsaioa bihar

San Joan Kantaitako entsaioa izango da bihar. Entsaioak izango dira baita ere ekainaren 6an eta 20an. Arratsaldeko 20:30etan, Gabriel Zelaian. ||

### San Joan Konpartsaren entsaioak

San Joan Konpartsaren entsaioak ere izango dira bihar eta larunbatean. Bihar, arratsaldeko 19:30etan Gay Murren; eta larunbatean, arratsaldeko 17:00etan, leku berean. ||

## ❖ MENDIRIZ MENDI

### Mendaur eta Iturenera joateko izena emateko azkeneko eguna

Iganderako irteera antolatu du Mendiriz Mendik Ituren, Mendaur eta Arantza aldera. Gaur da izena emateko azkeneko eguna, arratsaldeko 20:00etatik 21:00etara, Mendiriz Mendiko bulegoan. ||

## ◆ MUS TXAPELKETAK

### Gaurko partidak

Mus txapelketa ezberdinetan partidak jokatu dira gaur. Xalaparta elkarte txapelketan honakoak jokatu dira: Iñaut-Popo/Ruiz-Ruiz; Julio-Rubio/Portillo-Ivan; Julio-Vicente/Bosteko-Agustin; Ander-Txapu/Peli-Roman. Aralar tabernan beste partida hauek jokatu dira: Ramon-Gabi/Julen-Ugaitz; Goñi-Bilbao/Txoni-Txutxi; Beloki-Andres/Felix-Javi; eta Txomin-Javi/Manu-Kintxo. Santa Barbara elkarte partidak hauek jokatu dira: Arruti-Palo/Ketus-Jesus; Javi-Rafa/Sesma-Kaki; Julian-Javi/Eusebio-Txanto; eta Manu-Josetxo/Aiert-Jon. ||

## ❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Baserria hartuko genuke errentan, bi lagunek. Deitu: 656 703 814  
 Volkswagen Transporter 2.5 tdi salgai, 102 CV, kanpinerako prestaturia. 2001 urtekoa, ITVa pasata. Bizikletak eramatekoa, aire egokitua... Prezioa 15.000 euro. Deitu: 686 200 536  
 Etxea salgai Hernanin. 3 gela ditu, saloia, sukalde eta komuna. Deitu: 943 55 25 85.  
 Sukalderako laguntzaile behar dugu Igeldoko sagardotegi batean lan egiteko, asteburuetan. Interesatuak deitu: 635 746 559  
 Pixua salgai Floridan (La Cumbren). 60 m2 ditu, 2 logela, egongela, sukalde, komuna, 60 m2ko garbata eta trasteroa. Deitu: 627 501 957  
 Hernanin aukerako pixua salgai. Sukalde, 3 logela, komuna, kalefakzioa... Kanpoaldera. Deitu: 628 116 949.  
 BIDEA masajeak. Santa Barbara auzoa. Tel.: 656 78 64 15 (aurretik deitu).  
 Xanti Masajista. Kirol masajea, TP de Cyriax, kiropraxia, osteopatia xamurra, bioaktibadore neurologikoa, kinesiologia, reflexologia. Deitu: 943 33 07 35 (Lizeaga, 2 P-1 B).  
 Yolanda estetika zentrua. Argi zapaldu bidezko depilazioa (azken berrikuntza), mantxa eta Kuperros. Haserako eskaintza. Froga dohainik. Atzieta 2, behe. Tel. 943 55 32 78.  
 Argia zentroa. Masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, errelejo ajustea eta bertebra, kromoterapia, drainaje linfatikoa... Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76  
 Argia zentroa. Balneoterapia-spa, gorputz eta aurpegi tratamenduak, oinen eta eskuen estetika. Eskatu ezazu programa informatiboa. Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76